

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

6/2018 Foru Agindua, urtarrilaren 12koa, urtarrilaren 30eko 19/2017 Foru Aginduak, Arraia-Maeztuko udalerrian Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onartzen duenak, ezarritako baldintzen betetzea onestekoa

AURREKARIAK

Lehenengoa. Urtarrilaren 30eko 19/2017 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onartu zen, zenbait baldintzarekin, Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea, Arraia-Maeztuko udalerrian.

Bigarrena. 19/2017 Foru Agindu horrek, ezarritako baldintzak funtsezkoak ez zirela kontuan hartuz, ezarri zuen behin horiek zuzenduta espedientea foru aldundiari bidali behar zitzaioela, jendaurrean jartzeko beste izapiderik egin behar izan gabe, betearaztekoa zela adierazteko, izapidetzeko eta argitaratzeko asmoz.

Hirugarrena. 2017ko abenduaren 21ean, espediente horren testu bateratua aldundi honen erregistroan sartu zen.

OINARRIAK

Aurkeztutako agiriak aztertu dira, eta egiaztatu da bete direla foru agindu horretan ezarritako baldintzak.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urtarrilaren 30eko 19/2017 Foru Aginduak, Arraia-Maeztuko udalerrian Laminoria Aurrealdeko lurzoru urbanizaezinaren Antolamendu Plan Bereziaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betiko onartzen duenak, ezarritako baldintzak betetzat jotzea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 12a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

**ARRAIA-MAEZTUKO UDALERRIKO LAMINORIA AURREALDEKO LURZORU
URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDU PLAN BEREZIAREN ARAUDIA****Antolamenduaren irizpideak eta helburuak**

Plan berezi honen xede orokorra da Laminoriako harrobien antolamendua idaztea, Arraia-Maeztuko udal planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritako hirigintza helburuarekin bat etorritz, baita harrobien ustiapenak goragoko araudi baten aurka egiten ez duela justifikatzea ere.

Planeamenduko hirigintza parametro orokorrak

1. 202. artikuluan ("Eraikuntza erabilera eta jardueri esleitutako hirigintza parametroak"), ez du harrobi jarduera berariaz aipatzen. Uztailaren 21eko 22/1973 Legeak, meatzeenak, 2. eta 105.2 artikuluetan xedatutakoan oinarrituta, meatze jarduera, osorik hartuta, onura publikoa duenez, "Onura publikoko eta interes sozialeko eraikinen" parametroak izendatu dira, alegia:

- [...]
- Gainerako eraikinak:
 - Eraikigarritasuna: 0,10 m²/m².
- Gutxieneko azalera lotua: 5.000 m² lurzati bakarrean.
- Gehieneko okupazioa: % 10.
- Gehieneko solairu kopurua: 2.
- Gehieneko garaiera, erlaitzean eta teilatu hegalean: 7 m.
- Mugetarako tartea: 10 m.
- Errepideetarako tartea: 20/1990 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoan, ezarritakoak.
 - Landa bideetarako tartea: otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa-bideen erabilera, artapen eta zaintzarakoan, ezarritakoak.
 - Ur ibilgu eta masetarako gutxieneko tartea:
 - Kontsumorako ez diren ur ibilgu, urmael eta putzuetara: EAeko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeako ALPn adierazitakoa.
 - Hornitze putzu eta iturburuetara: 300 m.

Debekatuta dago lurretara hondakin ura botatzea, baldin eta uren kalitatean eragina izan badezake.

2. Gainera, 203. artikuluan ("Eraikuntza erabilera eta jardueri eskatu ahal zaizkien beste baldintza batzuk"), lehen puntuan, adierazten da aurreko parametroak ez ezik baldintza edo betekizun hauek ere eskatuko direla ukitutako kasu bakoitzean:

b) % 12tik gorako aldapa duten lursailetan egin beharreko proiektu teknikoetan, lurrak mugitu behar izanez gero, lurzoruaren egonkortasunean eta higagarritasunean eragin kaltegarririk egongo ez dela bermatzen duten azterketa teknikoak sartuko dira.

c) Finken itxiturak honako baldintza hauetan baimenduko dira:

- Ezin izango dira elektrifikatu, baldin dituzten neurriak, garaiera, intentsitatea eta tentsioa direla kausa fauna elektrokutatzeko arriskurik badago.
- Ezin izango dute galarazi faunak itxitura alde batera nahiz bestera zeharkatzea.

201. artikuluan baimendutako erabilerei lotuta ez dauden lurzatiak hesitu nahi dituztenek alanbre haria erabiliko dute, gehienez ere 1,50 m-ko garaierakoa. Horrela, ezinezkoa izango da edozein motatako zapatak, zokaloak edo harrizko murrak, sare metalikoak eta abar erabiltzea.

d) Jabari publikoa hidraulikoaren Araudiaren 245. artikuluan araututako isurketa baimena aurkeztu beharko dute jabari publiko hidraulikoa kutsa edo degrada dezaketen espediente guztiek, obra baimena eman baino lehen.

e) Orobat, espediente guztietan, sortzen diren eragin kaltegarriak al bait gehien txikiagotzea eta leheneratzea bermatzen duten neurri zuzentzaileen proiektua aurkeztu beharko da.

f) Ibilgu naturaletan obrak egiteko baimena lortzeko, obra horiek arrain espezieen joan-etorri libreari eragin diezaioketenean, espezie horien gaineko eragin kaltegarririk ez dagoela ziurtatzen duten azterketak aurkeztu beharko dira. Bestela, albo ibilguak edo eskalak eraiki beharko dira, neurri zuzentzaile gisa.

g) Gerta daiteke arkeologia, paleontologia, mineralogia, historia edota, oro har, geologia edo kultura aurkikuntzak izatea horietarako egoki ez diren zehaztapenak dituzten zonetan. Halakorik gertatuz gero, organismo edo erakunde eskudunak erabaki ondoren, kautelazko neurri gisa, eragindako lurretan esku hartzeko baimenak eta lizentziak etengo dira eta etenda jarraituko dute harik eta hirigintzako arauketa aldatuta planeamendua egoera berrira egokitu arte edo aldaketa hori interes orokorraren kontrakoa izateagatik ukatu arte. Halako aurkikuntzak berehala jakinarazi behar zaizkie haiek egiaztatzeko, babesteko edo ustiatzeko eskumena duten erakunde edo organismoek.

h) Naturak nahiz gizakiak eraginda lurzoru bat zona jakin batekoa izatea dakarten baldintzak galduz gero, gertaera hori ez da nahikoa arrazoi izango kalifikazio hori aldatzeko. Aitzitik, hasierako egoerara leheneratzeko neurriak gauzatu beharko dira.

Hirigintza zehaztapenak

1. Plan bereziak antolamendu xehatuko planak dira. Horrek esan nahi du, lehenengo eta behin, inoiz ezin dutela "ex novo" ezarri "egiturazko antolamenduaren" berezko zehaztapenik. Gainera, ezin dira plan orokorrak edo arau subsidiarioak ezarritako egiturazko antolamenduko zehaztapenekin kontraesanetan egon, ezta horiek aldatu ere.

2. Ondorioz, ezingo dute sistema orokortzat jotzen den hornidura, azpiegitura, espazio libre edo berdegunerik ez ezarri ez aldatu, ezta plan orokorrak edo arau subsidiarioak ezarritako hirigintza eraikigarritasuna handitu ere.

3. Plan berezi honi dagokionez, harrobia ustiatzearekin zerikusia duten lanek ez dute aldatzen ukitzen dituzten lurzoruen sailkapena, 130/2011 eta 564/2012 Foru Aginduen bitartez "ex profeso" egin den aldaketa puntuala onetsitakoan.

Antolamenduaren deskribapena

1. Arestian ezarri eta azaldutako helburuak eta hirigintza parametroak kontuan hartuta, zona eta area hauetan zatitutako antolamendua proposatzen da:

- Instalazio zonak: instalazio eta eraikinen areak eta funtzionaltasun ekologiko partziala duten meatze-urmaelen areak barne hartzen dituzte.

- Harrobi zonak: ustiatzen diren areak eta harrobi bihur daitezkeen areak barne hartzen dituzte.

- Leheneratutako zonak: leheneratutako areak eta funtzionaltasun ekologiko osoa duten meatze urmaelen areak barne hartzen dituzte.

2. Instalazio eta eraikinen areak ezaugarri hauek dituzte:

- Instalazio eta eraikinen aireko eremuaren azalera: 243.121 m².

- Eraikigarritasuna: 0,10 m²(t)/m²(s) - 24.312 m².

- Gehieneko okupazioa: eremuaren % 10 (24.312 m²).

- Gehieneko solairu kopurua: 2.
- Erlaitzerako edo teilatu hegalerako gehieneko garaiera: 7 m.
- Mugetarako tartea: 10 m.
- Ustiapen eta tratamenduaren berezko jarduerarekin zuzeneko zerikusia duten instalazioek jardueraren funtzionamendu zuzenera mugatutako gehieneko garaiera edukiko dute.
- Tratamenduarekin zerikusia duten instalazioek bereizgarri duten tipologia industrialari eutsiko diote, tokian bertako itxiturak edo karenak edukiko dituzte, berariazko arloan eskumena duen ingurumen organoak zaraten eta atmosferarako isurien ondoriozko asaldurak prebenitzeari buruz ezartzen dituen baldintzen arabera, nahitaezko ingurumen eraginaren adierazpenaren bidez eta atmosfera kutsa dezakeen jardueraren baimenaren bitartez.
- Instalazioen inguruetan animaliak igarotzea galarazten duten itxitura hesiak baimentzen dira animalien edo gizakien bizitzarako arriskutsuak izan ahal badira, Nekazaritza eta Basogintzako Arloko Lurralde Planaren 20. artikulua ("itxiturak eta hesiak") eta Arraia-Maeztuko arau subsidiarioen 134. artikulua ("Hesiak") eta 203.1.c) artikulua arabera. Horiei jarraikiz, ezartzen da ezaugarri hauek eduki behar dituztela:
 - Ezingo dira elektrifikatuta egon.
 - Abereak kontrolatzeko, harizko alanbrezko edo alanbre leunezko saretazko itxiturak erabiliko dira, zur tratatuzko edo metalezko piketeen gainean. Haien gehieneko garaiera 1,5 m izango dira, eta fauna basatiaren banaketari eragin ahal dioten ehiza-sistemen erabilera saihestuko da.
 - Gainerako itxituretarako, hesi biziak erabili ahalko dira. Zuhaixka landare desberdinak eduki ahalko dute, ahal dela, espezie autoktonoetakoak, eta gehienez 1,5 m garai izango dira.
- 3. Funtzionaltasun ekologiko partziala duten meatze urmaelen areetan, behin-behinean instalazioen zati gisa erabiliko direla kontuan hartuta, Uraren Euskal Agentziaren iradokizunei jarraituko zaie.
- 4. Ustiatzen ari diren areetan, meatzeen araudia eta inguruko arloko araudiei buruz ematen dituen jarraibide teknikoak gailenduko dira.
 - Arrisku handiko jardueretarako berariazko itxiturei dagokienez (meatze aurrealdeak, bolborategiak...), indarrean dauden araudien arabera itxitura baldintzak beteko dira (ITC).
 - Arrisku seinaleak jarriko dira beharrezkotzat jotzen bada langileak area arriskutsuetatik urrun geratzea.
- 5. Harrobi bihur daitezkeen areak etorkizunean ustiatzen ari diren areakoak izango direnak dira, aurreikusitako leheneratze planaren arabera. Ustiatzen ez den bitartean, Arraia-Maeztuko udalerriko indarreko arau subsidiarioetako "2. zona. Baso babeseko zona" delakoan adierazitakoari jarraituko zaio.
- 6. Leheneratutako areetan, Nekazaritza eta Basogintzako ALPri eta Arraia-Maeztuko udalerriko indarreko arau subsidiarioetako "2. zona. Baso babeseko zona" delakoari jarraituko zaio, eta babes, eraikuntza eta erabilera baldintzak han baimendutakoak izango dira.
- 7. Funtzionaltasun ekologiko osoa duten meatze urmaelen areetan, uztailearen 27ko 160/2004 DEKRETUAK, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duenak, xedatutako baldintzak beteko dira.
- 8. Kontrol barrerak ipini eta behar bezala seinalezatu beharko dira Z8-Harrobiak zonarako ibilgailuetarako sarbide guzti-guztietan, meatzeen arloko arauan dagoen itxitura agindu bakarra betetzeko (ITC).

9. Ibilguetan edo uraldien aurka prebenitzeko zonetan egiten diren agregakinen erauzketarako, neurri zehatzak ezarri beharko dira beheagoko kotetan dauden pertsona, eraikin eta lurrentzako arriskuak ekiditeko. Debeku da materialak pilatzea malda, troka edo ibilguetan baldin eta ura aske igarotzea oztopatzen badute eta material edo gaiak arrastatzea eragiteko arriskua badakarte.”

Eraikuntzak eta eraikinak definitzeko alderdiak

1. Arraia-Maeztuko udalerriko arau subsidiarioen 203.1.a) artikulua aplikatuko da. Bertan, hau adierazten da:

1976ko Lurzoruaren Legearen testu bateginak 73. artikuluan agindutakoa betetzen dela bermatzeko, “edozein eraikin bere ingurura egokitu behar dela” xedatzen baitu, baldintza estetiko hauek errespetatu beharko dira, bereziki multzo historiko, artistiko edo arkeologiko batetik hurbil dauden eraikuntzetan edo paisaia ireki eta naturaletan daudenetan:

- Fatxadak tradiziozko teknika eta materialekin egingo dira eta saihestu egingo da tradiziozko eraikitze sistemak, egiturazkoak zein akaberakoak, simulatzen dituzten elementuak erabiltzea.

- Estalkiak, ahal dela, kolore gorriko teila arabiar zeramikozkoak izango dira, baina bestelako estaldura erabili ahalko da, baldin eta ingurunean integratzen bada. Ez da mantsarda formularik onartuko, ezta estalkiko planoak desitxuratzen dituen elementurik ere.

2. Egin beharreko oinplano berriko eraikuntzek landa arkitekturako berezko elementu arkitektonikoak eta konposizio forma klasikoak erabili beharko dituzte.

3. Estalkiek % 20 eta % 40 bitarteko maldak izango dituzte.

4. Fatxaden materiala fabrika zarpiatuzkoa edo iztukadurazkoa eta harri naturalezko harlanduzkoa edo harlangaitzezkoa izango da. Euskal herri arkitekturaren berezko eskudria eta ataltzeen arabera erabilitako zura ere onartzen da.

5. Saihestuko da fatxadaren konposizioan hiri zonetako etxebizitzaren arkitekturaren berezko elementu arkitektonikoak erabiltzea, adibidez, persiana biribilgarriak, balkoi jarraituak profil hutseko erremontaritzekin eta beiraz hornitutako horma atalekin, etab.

6. Estalkien konposizioa eraikinen oinplanoko konposizioarekin bat datozen bi, hiru eta lau isurkiz egingo da, erraz ezagutu ahal diren eta forma sinpleak dituzten bolumenak sortze aldera.

7. Fabrikako horma atalen akabera kalitate bikaineko kanpoalderako margoez egingo da, fabrika zarpiatuaren gainean.

8. Hala ere, plan berezi honetako ordenantzetan berariaz aipatzen ez diren alderdi guztiei dagokienez, Arraia-Maeztuko udalerriko indarreko arau subsidiarioetan horretarako ezarritako araudia aplikatu ahalko da subsidiarioki.

Zerbitzu sareen baldintza teknikoak

1. Saneamendu eta euri sareak.

A. Sistema berezia izango da eta lurperatuta egongo da, sarbide eta pistetako areketan izan ezik. Bideen eta garraio edo sarbide pisten arteko bidegurutzeak lurperatuta egongo dira.

B. Erregistro putzuak jarriko dira oinplanoko noranzko aldaketa guztietan, malda aldaketetan, profilean eta harguneak konektatzen diren puntu guztietan. Berariaz debekatuta egongo dira kolektoreetarako harguneitsuak. Hargunearen beheko sortzailea kolektore orokorraren goiko sortzailearen gainean egongo da, sarean atzerapenak saihesteko asmoz.

C. Putzuetako estalkiak galdaketazkoak izango dira, beren erabilerarako egokiak, galtzadan zein espaloian instalatuta egon.

D. Kolektoreak diseinatzeko, malda lursailaren maldara egokituko da, lur mugimendua txikiagotzeko, kontuan izanik uraren gutxieneko abiadurak ez duela 0,60 m/seg baino baxuagoa izan behar, sedimentazioak saihesteko, ezta 3 m/seg baino baxuagoa ere, ur beltzen kasuan, edo 5 m/seg baino baxuagoa euri uretarako, higadurak ekiditeko. Gutxieneko aldapa % 1 izango da.

E. Saneamendu sarea putzu septikoetan bukatuko da, eta horiek gutxienez 2 urtez biltzeko egongo dira diseinatuta.

F. Sistema diseinatu eta kalkulatzeko, teknikari eskudun batek proiektua idatziko du, indarreko eraikingintzaren arau teknikoen, 5.2-IC jarraibidearen ("Azaleko drainadura") eta loturiko araudiaren eta herrietako saneamendu hoditerietarako baldintza tekniko orokorren arabera.

G. Emari naturalei igarotze zonetako eta bideetako euri uren emariak egiteko, aurretik atzeraezeko tanga duen gainezkabide batetik pasatu beharko dira, euri urak 1/10 erreferentziako diluzioarekin isurtzea ahalbidetzeko. Kasu bakoitzean aplikatuko den diluzio zehatzak arto bakoitzari buruzko azterlan zehatzaren arabera izan beharko du, Uraren Euskal Agentziak horretarako ezartzen dituen baldintzen arabera. Atzeraezeko tangaren xedea da saihestea bideetako zikintasunez (hala nola olioak, metal astunak, elementu lodiak, etab.) kutsatuta dauden lehen jarriate urak emarietan sartzea, baizik eta saneamendu sarera joatea, araztegi batean trata ditzaten.

2. Sare elektrikoa.

A. Sistema airekoa izango da eta aluminiozko kableak erabiliko dira.

B. Sistema diseinatu eta kalkulatzeko, teknikari eskudunak proiektua idatziko du, indarrean dauden eraikingintzaren arau teknikoei eta konpainia hornitzailearen berariazko araudiari jarraikiz.

C. Transformazio zentroak eremuaren barruko lursailetan kokatuko dira, eta transformazio zentroak eraikinean integrazteko ahalegina egingo da.

D. Behe tentsioan, indar eragilea 380 V-ko tentsioan egingo da.

E. Maniobra instalazioa 110 V-tan egingo da edo, instalazio berrietan, 24 V-tan.

F. Zeharkako kontaktu elektrikoen aurkako babesa, zirkuitu bakoitzean, lur hargune egokiaren eta etengailu diferentzialen bidez egingo da.

G. Gaiakargen eta zirkuitulaburren aurkako babesa etengailu magnetotermikoak instalatuz egingo da.

H. Instalazio bakoitzak banaketa, babes eta maniobra kaxa elektriko bat edukiko du. Eskuarki, hormigoizko bloke prefabrikatuzko eraikin txiki batean egongo da.

3. Hornidura sarea.

A. Lurperatutako sistema, ur hornidurako hoditerietarako baldintza tekniko orokorren agirien arabera egina.

B. Sareak beti egingo dira sareztatuta eta buruhormak jartzea saihestuko da; izan ere, leku horietan urak atxikipen denbora luzea dauka, eta horrek sedimentuak eratzea eta hondakin kloroak desinfektatzeko ahalmena galtzea dakar.

C. Oro har, hoditeriak espaloien azpian ipiniko dira, trafikoak horien gainean eragin kaltegarria edukitzea ekiditeko.

D. Sareak sektoretan banatuta egongo dira, balbulen bidez, matxurak egonez gero ukitutako erabiltzaileen kopurua ahalik eta txikiena izan dadin; horretarako, kale bakoitzean tartearak ez dira etxe uharte bat baino luzeagoak eta 100 m baino handiagoak izango.

E. Hustubide balbulak eta bentosak sartuko dira. Hustubide balbulek beste ebaketa giltza bat eduki beharko dute, sare guztia hustu beharrean horren zati bat husteko bidea ematen duena.

F. Hoditerien gainean sute ahoak jarriko dira, gutxienez 100 mm-ko diametrokoak badauden sareetan eta 150 mm-koak sare berrietan. Haien arteko gehieneko distantzia 200 m izango dira.

G. Hornidura sarearen barne presioa 2 kg/m² eta 4 kg/m² bitartekoa izango da.

4. Telekomunikazio sarea.

A. Sareak airean edo lurpean egingo dira, konpainia hornitzailearen berariazko araudiaren arabera.

5. Kanal naturalizatua edo drainadura zangak.

A. Ibilgu naturalizatu edo drainadura zanga berriak, Arraia-Maeztuko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ingurumen izapidetzerako aurkeztutako Zaharberritze Planaren 14.4 eta 14.5 ataletan eta 8. planoan eta hurrengoetan jasotako izendapenarekin bat etorritik, ingeniari-tza naturalistikoko tekniken bidez diseinatuko dira, askotariko landaredi konplexuarekin, ur baxuko eta agorraldiko ibilguak kontuan hartuta.

B. Uraren Euskal Agentziak horretarako ezartzen dituen baldintza teknikoak aintzat hartuko dira.

Eraikuntza erabilera eta jardueri eskatu ahal zaizkien baldintzak

Arraia-Maeztuko udalerriko arau subsidiarioen 203. artikulua (eraikuntza erabilera eta jardueri eskatu ahal zaizkien beste baldintza batzuk) aplikatu beharko da. Ondoren, erauzketa jarduerarekin zerikusia dutenak eta 5. artikuluan aipatu ez direnak laburbildu dira:

- % 12tik gorako aldapa duten lursailetan egin beharreko proiektu teknikoetan, lurra mugitu behar izanez gero, lurzorua egonkortasunean eta higagarritasunean eragin kaltegarririk egongo ez dela bermatzen duten azterketa teknikoak sartuko dira.

- Jabari publikoa hidraulikoaren Araudiaren 245. artikuluan araututako isurketa baimena aurkeztu beharko dute jabari publiko hidraulikoa kutsa edo degrada dezaketen espediente guztiek, obra baimena eman baino lehen.

- Orobat, espediente guztietan, sortzen diren eragin kaltegarriak alaitik gehien txikiagotzea eta leheneratzea bermatzen duten neurri zuzentzaileen proiektua aurkeztu beharko da.

- Gerta daiteke arkeologia, paleontologia, mineralogia, historia edota, oro har, geologia edo kultura aurkikuntzak izatea horietarako egoki ez diren zehaztapenak dituzten zonetan. Halakorik gertatuz gero, organismo edo erakunde eskudunak erabaki ondoren, kautelazko neurri gisa, eragindako lurretan esku hartzeko baimenak eta lizentziak etengo dira eta etenda jarraituko dute harik eta hirigintzako arauketa aldatuta planeamendua egoera berrira egokitu arte edo aldaketa hori interes orokorraren kontrako izateagatik ukatu arte. Halako aurkikuntzak berehala jakinarazi behar zaizkie haiek egiaztatzeko, babesteko edo ustiatzeko eskumena duten erakunde edo organismoak.

- Naturak nahiz gizakiak eraginda lurzoru bat zona jakin batekoa izatea dakarten baldintzak galduz gero, gertaera hori ez da nahikoa arrazoi izango kalifikazio hori aldatzeko. Aitzitik, hasierako egoerara leheneratzeko neurriak gauzatu beharko dira.

- Eraikin baten obretarako baimena eta lizentzia eskatzen direnean, ustiategiaren titularrak edo etxebizitza izango denaren erabiltzaileak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- Lurralde kapitala: lurren deskribapena eta hektarea kopurua.

- Ustiategiko eraikinak eta instalazioak: deskribapena, eraikuntza urtea eta bakoitzean eraikitako azalera.

- Makinak eta ekipamenduak: deskribapena eta kopuruak.

Berriazko erabilera baimengarriak

1. "8. zona. Harrobiak" delakoan baimendutako erabileretan, inplizituzat joko da Nekazaritza eta Basozaintzako Arloko Lurralde Planaren 32. artikuluan definitutako erauzketa jarduerena bakarrik onartuko dela:

1. Baliabide mineralak ateratzeko jarduerak eta haiei zuzenean lotutako erabilera osagarriak dira.

2. Baliabide geologikoak ateratzeko eta lehenengo tratamendua egiteko zonan bertan dauden eraikuntzak eta instalazioak hemen sartzen dira.

3. Ez dira sartzen meatzetako baliabideen prospekzio eta ikerkuntza lanak.

2. Hauek dira instalazio eta eraikinen areetako berriazko erabilera baimengarriak:

- Tratamendu instalazioak.
- Metaketa zonak.
- Zerbitzu zona.
- Instalazioak garatzeko zona.

3. Arrazoi hauek frogatzen dute erabilera horiek erauzketa jarduerari lotuta daudela eta kokapena egokia dela:

a) Tratamendu instalazioen kokapena (birringailua, errotak, baheak, elikagailuak eta makina osagarriak) beharrezkoa da amaierako produktuak (hautatutako agregakinak) lortzeko, eta horiek dira jardueraren funtsa. Tratamendu instalazioak area zehatzetan taldekatzen dira prozesuak errazteko, uhal garraiatzaileen bitartez elkarri lotutako instalazioen bidez, ahalik eta garapen txikienekoak.

b) Material metaketa ohikoa da mota horretako ustiategietan, harrobiaren ekoizpen ratioa gainditzen duten agregakinak eskatzen dituzten azpiegituren obra garrantzitsuak direla eta. Metaketa kopurua nabarmen aldatzen da eskariaren eta harrobiaren kudeaketaren arabera eta kasu puntualetan emandako area gaindi dezake.

c) Plan berezian, area bat zerbitzu zona izango dela xedatzen da; hor, bulegoak, baskulak, gurpil garbitzaileak, aldagelak, komunak, aparkalekuak, etab. egongo dira. Zerbitzu zonaren oinarritzko eginkizuna sarbidea kontrolatzea eta bezeroari arreta ematea da.

d) Merkatuaren eskakizunak justifikatzen du instalazioak garatzeko zona edukitzeko beharra, agregakinekin zerikusia duten produktuei gero eta balio erantsi handiagoa eskatzeko joera baitauka.

4. Garatzeko instalazioak ezartzeko erabil daiteke, hala nola:

- Zakuratzeko instalazioa.
- Materiala garbitzeko instalazioa.
- Harrobiko ibilgailuak konpontzeko lantegi eraikina.
- Motrailu instalazioa.
- Lehen jardueraren osagarri diren beste instalazio batzuk.

5. Taula honetan jarduera bakoitzerako xedatutako areak ikusten dira, baita jarduera osagarrietarako xedatutako guztizko azalerari dagokionez duten okupazio ehunekoa ere.

JARDUERA OSAGARRIAK	AZALERA	OKUPAZIO EHUNEKOA
Tratamendu instalazioak	60.985 m ²	% 25,08
Metaketa zona	28.541 m ²	% 11,73
Zerbitzu zona	48.278 m ²	% 19,85
Instalazioen garapena	105.317 m ²	% 43,32
GUZTIRA	243.121 m²	% 100

Ustiapen eta leheneratze epeak

1. Ustiapen epea 20 urte izango dira, 2007 eta 2027 bitarteko aldian, eta lau alditan banatuko da:

- 1. aldia, 5 urte: ipar-ekialderanzko zulo bat irekiko da hasieran eta, plataforma lortu ostean, hegoalderantz aurreratuko da. Oro har ipar-mendebaldetik hego-ekialderantz aurreratuko da. 85.000 m³ kareharri zuri eta 76.000 m³ antzu erauziko dira.

- 2. aldia, 5 urte: aurrealdea ipar-ekialdetik hego-mendebalderantz aurreratuko da, 85.000 m³ kareharri zuri eta 85.584 m³ antzu erauziko dira.

- 3. aldia, 5 urte: aurrealdea hego-mendebaldetik ipar-ekialderantz aurreratuko da, 85.000 m³ kareharri zuri eta 49.990 m³ antzu erauziko dira.

- 4. aldia, urte 1 eta zazpi hilabete: kareharrizko aurrealdea amaierako egoerara helduko da, 29.000 m³ kareharri eta 6.000 m³ antzu erauziko dira.

2. Ustiatu bitartean eta aldi bakoitzeko epeen barruan, sortutako zuloa leheneratuko da, sorturiko antzuak erabiliz.

3. Aldi bakoitzerako aurreikusitako iraupena eskariaren arabera aldatu ahalko da, baldin eta ustiapen epea 1. puntuan adierazitakoa gainditzen ez badu.

Leheneratze baldintzak

1. Urtero, ustiategi kontsezioa eman zen egunetik, enpresa sustatzaileak, Eusebio Echave SAK, dagozkion zeregin planak aurkeztu ditu, eta meatze agintaritzaren eskudunak guztiak onetsi ditu, Meatzeen Legearen 68. artikuluan eta Meatze araubiderako Araudi Orokorraren 89. artikuluan xedatutakoaren arabera. Zeregin plan bakoitzarekin batera, leheneratze eranskin bat aurkeztu da, bukatutako urtean egin diren leheneratze lanak eta hurrengo urterako aurreikusitako jarduketak biltzeko, urriaren 15eko 2994/1982 Errege Dekretua, meatze jardueren eraginpeko espazio naturala leheneratzeari buruzkoa (uztailaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuak, erauzketa industriaren hondakinak kudeatu eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babesteari buruzkoak, eta maiatzaren 4ko 777/2012 Dekretuak, hori aldatu zuenak, eguneratu zuten), betetzeko.

2. CE Esther (1. zatikia) delakoan Laminoria Aurrealdearen ustiapen proiektuaren aldaketari dagokion leheneratze plana, CRS enpresak 2012ko ekainean idatzitakoa, indarrean dagoen legeria betez idatzi da, bereziki azaroaren 2ko 130/2011 Foru Aginduan (137. ALHAO, azaroaren 23koa) ezarritako baldintzak betetzeko; foru agindu horren bidez, behin betiko onartu zen, baldintzekin, Arraia-Maeztuko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak aldatzeko espedienteak, Esther (1. zatikia) meatze emakidaren eremuaren barruan Laminoria Aurrealdea handitzeari dagokiona. Foru agindu horrek baldintza hauekin onartu zen (ondoan ondoko eta petan eta aurkeztu diren lanetan erantzun zaie):

- Espediente oso bat egingo da, fasetan egingo den jardueraren bideragarritasun ekonomikoaren azterlana jasotzen duena.

- Z8 harrobiak zonan edo leheneratu beharreko baso zonan egungo Z8 zonan dauden bi espazioak sartuko dira. Egun horietan Z2 babestutako baso zonako zatiak hartzen dituzten harrobiak daude. Era berean, Largo trokaren iparraldeko mugaren ondoan dauden betelan zona ere haietariko batean sartuko da.

- Halaber, Z2 babestutako zonan, agiri grafikoek argi eta garbi adieraziko dituzte erauzte jarduerak kaltetutako zonen mugak, egungoak zein aurreikusitakoak. Horrez gain, oro har, hobeto definituko dira aurkeztutako agiri grafikoak.

- Esku hartzeak kontuan izango du eraikin, instalazio eta gainontzekoak, gutxienez, 15 metrora egongo direla EAeko ibaiertzak eta errekaertzak antolatzeke lurraldearen arloko planean 0 maila duten ibilgu berezituetatik. Erauzketa aurrealdeko drainadurak aldi baterakotzat jotzen dira; beraz, ez da aipatutako ALP aplikatu behar.

- Funtsezko baldintza izango da, eraginak txikiagotzen direla eta eremua egokiro leheneratzen dela ziurtatzeko asmoz, harrobia ingurumen eraginaren baterako ebaluazioaren prozeduran eskatutako baldintza teknikoari eta ingurumenekoari jarraikiz ustiatu eta leheneratzea, bai ustiapen planari bai harrobia leheneratzeko eta landareztatzeke planari dagokienez. Gainera, baliteke beste administrazio organo eskudun batzuek ezarri ahal duten bestelako baldintza gehigarriak bete behar izatea, hala badagokio.

- Sustatzaileak neurri konpentsatzaileak gauzatzeko proiektu bat aurkeztuko du, gero gauzatzeko asmoz. Arabako Foru Aldundiko ingurumen eta basogintza organo eskudunetako zerbitzu teknikoek onartu behar dute proiektu hori.

- Ustiapen proiektuaren eranskin geoteknikoan esaten den moduan, harrobiko zatirik altueneko ezpondek (Uratxako iparraldeko sektorea) gehienez 25°-ko inklinazioa edukiko dute. Baldintza hori ustiapen proiektuan (planoak eta baldintzen agiria) eta hirigintza aldaketako agirian jaso behar da, leheneratze baldintza gehigarri gisa.

- Harrobia leheneratzeko eta landareztatzeke proiektu programak xedatu behar du gutxienez 50 cm-ko lodierako landare lurra ekarriko dela aldatutako eta berreskuratu beharreko azaleretara, beste 50 cm-ko antzu geruza baten gainean.

- Sustatzaileak agiri sistema bat eratuko du egindako txosten guztiekin eta hauei buruz egindako laginketen emaitzekin: uren kalitatea, hauts mailak, zaratak, bibrazioak, paisaiaren gaineko eraginaren kontrola, ezarritako ustiapen baldintzen kontrola eta jarraipena; transferentzia meatzaritza eskailerako kuartelekin, neurri konpentsatzaileen betetzearen jarraipena, egokitzapen morfologikoko lanen gauzate maila, landareztatzeke programaren arrakasta, ur jauzi trabertinikoaren funtzionamendu hidrologikoaren gaineko eraginaren jarraipena, Ega ibaian bizi diren espezie mehatxatuen gaineko eraginaren kontrola, besteak beste. Txosten horiek aldizka bidaliko zaizkie toki administrazioei (udalari eta ukitutako administrazio batzarrei), baita Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari ere.

3. Helburu hauei heltzen zaie CE Esther (1. zatikia) delakoan Laminoria Aurrealdearen ustiapen proiektuaren aldaketari dagokion leheneratze planean, CRS enpresak 2012ko ekainean idatzitakoan:

- Segida ekologikoko prozesu positiboak piztea.

- Jariatzea modu adituan lantzea: higadura kontrolatzea.

- Ustiapen aurrealdea paisaian integratzea, bai ustiategiaren diseinua bai zuloaren ikusgaitasuna leuntzeko edo kentzeko egin ahal diren jarduketara teknikoak kontuan izanik.

- Azpiegiturak, instalazioak eta metaketa arloak paisaian integratzea, kokapen eta diseinu hautabideak aztertzea. Landare pantailak eraikitzeo eta ahalik eta dibertsitate handieneko espezie autoktonoez landareztatzeo proiektua egitea.

- Habitata faunarentzat berreskuratzea.

4. Leheneratze plan horrek ustiatetikoko zona bakoitzerako leheneratze zeregin zehatzak antolatzen ditu (zuloak, meategiko hondakindegia, zona hezeak, tratamendu eta metaketa instalazioak, etab.).

5. Meatze baliabideak (harea silizeo eta karezkoak) erauzteko aurreikusten den metodoa transferentzia da; hots, ustiatetia "kuarteletan" banatuko da eta, horrela, ustiatutakoak lehenatu ahalko dira meatze jarduera kuartel aktiboetan mantentzen den bitartean.

6. Ustiatutako kuartelak aktiboetako antzuek betetzen dira, eta gero landareztatu egiten da, horretarako idatzitako leheneratze eta landareztatze proiektuaren arabera. Laburbilduz:

- Aldatutako zonetara eta ezpondetara landare lurra edo substratua ekarriko da.

- Zona lauetan xehetasunez ereingo da eta gainerako zonetan hidroereintza egingo da, proiektuan zehaztutako dosifikazioaren arabera.

- Haziak lurreratuko dira eta lurzorua edo substratua arinki trinkotuko da.

- Landatu egingo da, orientazioak, maldak eta abar kontuan hartuta, eta ekologiarri eta paisaiari lotutako irizpideak gailenduko dira landare espezieak eta tamaina hautatzean.

7. Arau subsidiarioen aldaketa izapidetzean aurkeztutako ustiapen proiektuaren aldaketaren leheneratze plan hau aldatutako proiektuak eragingo dien azalera berriei dagokie. Orain arte eraginpean dauden azalaretako batzuk 2004ko irailaren 15eko ebazpenean onetsitako irizpideei jarraikiz lehenatu ziren; beste batzuk, bitarteko leheneratze aldietan daude; beste batzuk ez dira aldatu eta ez dira aldatu behar; eta, azkenik, beste batzuk instalazioak hartzen dituzten azalerei dagozkie, eta bere garaian, eraistean, leheneratze plan berriaren irizpideak aplikatuko zaizkie. Ondorioz, aipaturiko aldaketa puntuala baino lehen ukitutako zonak honela irudikatzen dira: lehenengoak, dagokien grafiarekin (kanpoko meategiko hondakindegian jadanik aplikatu da); besteak, IEBen onetsitako planaren irizpideei dagozkienekin edo leheneratze plan berrikoekin, lortu nahi den helburuari buruzko irizpideak antzekoak direnean.

8. Leheneratze planak azaroaren 2ko 130/2011 Foru Aginduko baldintzekin bat etorri behar du, abenduaren 7ko 546/2012 Foru Aginduan edo ondoren onartutako aldaketetan adierazten den moduan.